



**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN
ESPARRUKO BALDINTZAK**
HORNIDUREN KONTRATUAK

**CONDICIONES ESPECIALES EN MATERIA DE
IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES**
CONTRATOS DE SUMINISTROS

**38.2.5.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUN ESPARRUKO BALDINTZAK**

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua exekutzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak eta 2019ko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriak ezartzen dituenak xedatutako moduan.

2.- Enpresa esleipendunak lengoia ez-sexista erabili beharko du kontratu hau exekutatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

**38.2.5.- CONDICIONES EN MATERIA DE
IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES**

1.- La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y el Real Decreto-ley 6/2019, de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación.

2.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.